

# KONPAINIA ONEAN



Sorabillan bizi da, Andoinen, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako bazterkeria arriskuan dauden gazteentzako CARITAS GIPUZKOAREN harreraretxean. Pertsonen prestakuntza eta akonpainamendua bultzatzen den CARITAS GIPUZKOAREN Sarea fundazioan egiten ari zen soldadura-ikastaroa, bertan behera utzi du koronabirusak. Hala eta guztiz ere, Abdelek (Maroko, 1994) aitortzen du pozik dagoela, *“osasuntsu nago”*, osasun-krisi bete-betean.

Joan den apirilaren 24an, hasi zen hilabete batez luzatuko den Ramadana. Abdelek gogorarazten du, urtero, ez dela egun berean hasten. Aldatu egiten da. *“Iaz, adibidez, ekainean ospatzen genuen; ilargiak erabakitzen du noiz hasiko den”*.

Gogora ekartzen du, 10 urtetik beherakoek ez dutela Ramadana hasieratik bukaerara egiten. *“Gutxi gorabehera zazpi urterekin, pixkanaka hasten da; egun batzuetan zehar. 15 urterekin, berriz, helduek bezala egiten dute”*. Berak ederki asko gogoratzen du bere lehen Ramadana. *“Ez zitzaidan batere gogorra egin, negutik gertu ospatu baitzen: egunak laburragoak ziren, eta ez zuen bero handirik egin. Eramangarria izan zen”*.

Ramadan *“garai normala da”*, eta bere jarraitzaileek, egunero egin ohi dituzten jarduera berberak egiten dituzte. Kasu batzuetan, baraua ez egitea gomendatu daiteke; adibidez, gaixotasun bat... Egunean zehar bost aldiz egiten dute otoitz, hiru egunez -goizean, eguerdian eta arratsaldean- eta bi gauetz. Lehenengo otoitza goizeko 05:12ak aldera izaten da.

*“Zerbait arina jan daiteke otoitz horren aurretik. Otoitza amaitu ondoren, bakoitzak bere egunerokotasunarekin jarraitzen du: lotara itzultzen da, lanera joaten da... Baina une horretatik aurrera ez dugu elikagairik irensten eguzkia sartu arte. 21:15ak arte”, erantsi du Abdelek.*

Gaueko afaria berezia izaten da. Mahaia partekatzea garrantzitsua da pertsona musulmanarentzat. *“Denetik jan dezakegu, baina garrantzitsua da gorputzari elikagai osasungarriak ematea, batez ere afariaren hasieran, digestioa ahalik eta normalena eta atseginena izan dadin; datilak, ura, zukuak... Hau da, urdaila prest egon dadin gero iritsiko diren elikagaiei aurre egiteko. Ondoren, era guztietako elikagai osasungarriak jaten ditugu: entsaladak, fruta...”, adierazi du marokoar gazteak.*

Mendebaldeko ikuspegitik, jende askok uste du Ramadanek sakrifizio handia eskatzen duela. Abdel ez da iritzi berekoa.

*“Txikitan, hasieran, apur bat gogorra egiten da, baina orain, eramangarria da. Ez du aparteko ahaleginik eskatzen. Ramadanaren lehen bi eta hiru egunen ondoren, gorputza ohitu egiten da. Gosea duzunean, badakizu egunaren amaieran jango duzula, eta are gehiago baloratuko duzula, senideekin, lagunekin eta abarrekin partekatuko baituzu. Barkamena eskatzen dugu gure artean, baita lagunei, iraindu dugun pertsonaren bati...”.*

Gaur Ramadanaren beste egun bat da. Elkarrekin egoteko. Eguna, azken otoitzarekin amaituko da, eta agian, baita bakoitzaren bere kabuz errezatuko dituen otoitz batzuekin ere; ondoren, Abdel lotara joango da. Atsedean hartzera.

